

Euskaltegiaren ikasturte berria prest

2014-2015 ikasturtea prest du Udal Euskaltegiak 'Euskaraz blai' lelopean. Beasaindarren beharrei erantzuteko ikastaroak antolatu dituzte; irailaren 17ra arte dago matrikula zabalik.

Euskaraz Blai leloarekin datorren ikasturteko ikastaro eskaintza prest dauka Udal Euskaltegiak, euskara bizitzaren arlo guztietara zabaltzeko helburuz.

Ikastaro eskaintza zabala prestatu dute, ikasleek dituzten behar desberdinei erantzuteko. Esate baterako, alde batetik, langabetuentzako alfabetatzeko doako ikastaroak antolatu dituzte; eta bestetik, iraupen laburreko ikastaro bereziak ere antolatu dituzte, besteak beste, mintzamina lantzeko edo azterketak prestatzeko.

Matrikula zabalik

Ikastaro desberdinetan izena emateko epea zabalik dago irailaren 17ra bitartean (943028100 - euskaltegia@beasain.net). Udal Euskaltegiak eta Beasaingo Udalak euskararen unibertsoa gerturatzera animatu nahi dituzte beasaindarrak: «Euskara ikasita leiho berriak zabal ditzakegu gure bizitzan. Kultura bat ezagutzeko aukera ematen diguten leihoak, berekin pentsakera desberdina dakarren hizkuntza desberdin eta polita ezagutzekoa».



El Euskaltegi Municipal oferta cursos para el curso que viene con el lema 'Empápate de Euskera', con el objetivo de expandir el euskara a todos los ámbitos.

Cada vez son más los cursos que organizan. De ese modo, el Euskaltegi Municipal quiere responder a todas las necesidades de diferente alumnado.

Entre ellos está el curso de alfabetización para las personas desempleadas. Por otra parte, se han organizado unos breves cursos para practicar el euskara o para preparar diferentes tipos de exámenes.

Plazo de matriculación

El plazo de matriculación para el curso 2014-2015 está abierto, hasta el 17 de septiembre (943 028 100 - euskaltegia@beasain.net).

El Euskaltegi Municipal y el Ayuntamiento quiere animar a la ciudadanía a acercarse al universo del euskara: «Aprendiendo el euskara, podremos abrir nuevas ventanas en nuestra vida. Ventanas que nos abren oportunidades para conocer una cultura».

> ikastaro eskaintza

- > Euskalduntze (1., 2. eta 3. mailak eta Alfabetatze ikastaroak).
- > EGA, HABE eta Hizkuntza Eskakizunetako azterketak prestatzeko ikastaroak.
- > 4. mailako ikastaroa on-line.
- > Autoikaskuntza.
- > Sektore desberdinentzako ikastaro bereziak.
- > Hizkuntza erabilera bultzatzeko ikastaro laburrak.
- > Mintzalaguna.
- > Langabetuentzako ikastaro trinkoak doan. **Berria!!**

diru-laguntzak

- > %60-%90 bitarteko matrikula itzulketa.
- > Devolución del 60% al 90% de la matrícula

> oferta de cursos

- > Cursos de euskaldunización (niveles 1, 2 y 3 y Alfabetización).
- > Cursos para preparar los exámenes de EGA, HABE y Perfiles Lingüísticos.
- > Autoaprendizaje.
- > Cursos de 4º nivel on-line.
- > Cursos específicos para diversos sectores.
- > Breves cursos para potenciar la utilización del lenguaje.
- > Mintzalaguna.
- > Cursos intensivos gratuitos para personas desempleadas. **Novedad!!**

Jolastuz hazi, aisian hezi

Beasaingo Udalak Aisihezi elkartearekin batera, aisi hezitzailea eskaintzen diete herriko haurrei, gaztetxoei eta gazteei. Berritsu eta Txelotxe ludotekak eta Eizu gaztelekua dituzte topagune.

Haurren eta gazteen garapen pertsonalean laguntzea da udal zerbitzuen helburua. Jolasaz eta harranean baliatuz, Berritsu eta Txelotxe ludoteketan eta Eizu gaztelekuan elkartzen dira. Aisi hezitzailea dute ardatz eta familiaren nola hezkuntzaren osagarri da. Erabiltzaileen garapen integrala, sozialazioa beste haurrekin eta helduekin, baloreak (berdintasuna, kultur aniztasuna, tolerantzia, integrazioa...), euskara eta euskal kultura, lana taldean egitea, kreativeitatea.... lantzen dituzte besteak beste.

Berritsu eta Txelotxe

Bi ludoteka daude Beasainen. Txelotxe ludoteka Ezkiaga auzoan dago eta 5 eta 8 urte bitarteko 30 haurrentzako lekua dago bertan. Asteleheneretik ostiralera (16:30-18:00) elkartzen dira bertan. Berritsu ludoteka, berriz, Loinazko San Martin plazapean dago. 5 eta 8 urte bitartekoak 17:00etatik 18:30era bil-

tzen dira eta 9 eta 12 urte bitartekoak 18:30etik 20:00etara elkartzen dira. 100 lagunentzako prestaturako dago. Kasu guztietan, matrikula, urteko, 63 eurokoa da. Biler informatiboak irailaren 16an egingo da, 17:00etan, Udaletxean.

El principal objetivo de los servicios municipales es el desarrollo personal de niños, niñas y adolescentes, utilizando el juego y la relación como herramienta. Las ludotecas Txelotxe (en el barrio Ezkiaga) y Berritsu (en la plaza) son lugares de encuentro para niños y niñas de entre 5 y 8 años (en Berritsu también de entre 9-12 años). El 16 de septiembre se realizará una reunión informativa en el Ayuntamiento.

izen ematea

- > Irailaren 15etik 26ra, 16:00etatik 17:00etara, Berritsu eta Txelotxe ludoteketan.
- > Matrikula: 63 euro.
- > Plazo de inscripción: del 15 al 26 de septiembre, de 16:00 a 17:00 en las ludotecas Berritsu y Txelotxe.
- > Matrícula: 63 euros.



Eizu gaztelekua

12 eta 17 urte bitarteko gazteenentzako aisialdi zerbitzua eskaintzen du Eizuk, Urbieta etxean. Ostegunetan eta ostiraletan 17:00etatik 20:00etara egoten da irekita, eta larunbatetan eta igandeetan 16:00etatik 20:00etara. Ikasturte berriko jaia irailaren 27an egingo dute.

>9-12 urtekoentzat ekintza irekiak

9-12 urteko gaztetxoentzat ekintza bereziak prestatu dituzte Berritsu ludotekan, 18:30etik 20:00etara. Aurtun, irailaren 30etik urriaren 31ra, egitarau berezia prestatu dute zerbitzua ezagutzeko helburuarekin. Ekintzak irekiak dira, baina irailaren 22tik 26ra eman behar da izena.

- > Irailak 30, asteartea: **Igerilekura** irteera.
- > Urriak 2, osteguna: **Skate parkera**.
- > Urriak 6, astelehena: **Sukaldaritza**. Eizu gaztelekuan.
- > Urriak 8, asteazkena: **Play Station**.
- > Urriak 10, ostirala: **Wii txapelketa**.
- > Urriak 14, asteartea: **Eskulana**.
- > Urriak 17, ostirala: **Aquariumera gava pasatzera**.
- > Urriak 20, astelehena: **Ping pong txapelketa**.
- > Urriak 23, osteguna: **Bideo emanaldia**.
- > Urriak 29, asteazkena: **Eskalada** ikastaroa.
- > Urriak 31, ostirala: **Txantxa jolasak**.

Jolastuz hazi,
Aisian hezi
Crecer Jugando,
Educar Disfrutando

berritsu txelotxe

9-12 urtekoen txandak

Berritsu ludotekan
asteleheneretik ostiralera
18:30etatik 20:00etara

Irailaren 12an hasiko da Genero eta Berdintasun ikastaroa



Beasaingo Udalak, Berdintasun Foroko emakumeen eskariz, Genero eta Berdintasuna ikastaroa antolatu du. Emakumezkoei zuzendua dago ikastaroa eta dohainik da. Ikasturte osoko iraupena izango du eta 10 saio egingo dira; hilean osiral bat, 17:00etatik 19:00etara.

Irailaren 10a baino lehen eman behar da izena 943 087 663 telefono zenbakian edo berdintasun@beasain.net posta elektronikoa. Bizitzaren hainbat alorretan emakumeen aurka ematen diren desberdintasun egoerak, bazterkeria eta indarkeria zertan oinarritzen diren ulertzeko oinarritzko ikastaroa da.

El curso sobre Género e Igualdad tiene como objetivo comprender los elementos claves en los que se asienta y manifiesta la desigualdad, la exclusión y la violencia contra las mujeres en los diversos ámbitos de la vida.

El curso comenzará el 12 de septiembre. Está dirigido a las mujeres y es gratuito.

El curso constará de 10 sesiones (cada mes un viernes). La inscripción está abierta hasta el 10 de septiembre (943 087 663 - berdintasun@beasain.net).

Zergen egutegi fiskala

Irailaren 1etik urriaren 31ra bitartean bi zerga ordaindu beharko dituzte beasaindarrek. Batetik, ibilgailuak finka hirutarretan sartzeko sarrerari dagokiona; eta bestetik, ibilgailuen geralekuari eta kokaguneari dagokiona.

Del 1 al 31 de octubre el Ayuntamiento de Beasain cobrará dos tributos: la correspondiente a la entrada de vehículos en fincas urbanas y la de parada y situación de vehículos.

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko eguna Orion

Urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko eguna ospatuko da Orion. Udalak autobusa antolatu nahi du bertara joateko. Horretarako, izena eman behar da irailaren 15a baino lehen. Argibide gehiago nahi duenak, 943 087 663 / berdintasun@beasain.net.

Airearen astea ospatuko da irailaren 5etik 14ra Igartzan

Airea gure bizitzako parte da. Baina koloregabea, usaingabea eta zaporegabea denez, batzuetan ez dugu gogoratzeko hor dagoela. Erabilera ugari ditu aireak: izaki bizidunak bizirik mantentzen ditu, energia sortzeko erabiltzen da, airearekin musika lortzen da...

Airearen garrantziaz jabetzeko, arlo horiek guztiak landuko eta sakonduko dira irailaren 5etik 14ra Udalak antolatu duen Airearen astean. Erakusketak, hitzaldiak eta paperezko hegazkinen eta haize erroten tailerrak egongo dira Igartzan.



A menudo se nos olvida que el aire es parte de nuestra vida.

El aire tiene más de una función: el aire que respiramos, el aire que nos envuelve, el aire como energía, el aire como arte.

Para concienciar de la importancia del aire, el Ayuntamiento ha organizado la Semana del Aire entre el 5 y el 14 de septiembre.

En Igartza se realizarán, exposiciones, charlas y talleres de aviones y molinillos de papel.

Ziklomotoreen azterketa

Irailaren 18an eta 25ean, 09:00etatik 13:45era, ziklomotoreen azterketa teknikoa egin ahal izango da, Kale Nagusiko 9an. Aldez aurretik txanda hartu behar da, Irungo IAT bulegoan (943 62 63 00).

El 18 y el 25 de septiembre, de 09:00 a 13:45 horas, se realizarán inspecciones técnicas de los ciclomotores en Kale Nagusia, 9. Hay que solicitar cita previa: 943 62 63 00.

Igartza sariaren sari banaketa irailaren 11n egingo da

22 lan aurkeztu dira XVII. Igartza literatur sariketara eta datorren hilaren 11n, 19:00etan egingo dute sari banaketa, Igartzako jauregian bertan.

Irabazleak 6.000 euroko diru laguntza jasoko du urtebetean liburuak idazteko.

> Argitaratzailea: **Beasaingo Udala**

> Helbidea: **Loinazko San Martin plaza**

> Posta elektronikoa: **udala@beasain.net**

> Telefonoa: **943-02 80 50**

> Webgunea: **www.beasain.org**

> Diseinua: **Bidera Zerbitzuak**



•• *Txokolatera mutur beltza, esta cuesta lo que cuesta* abesten zuten trenaren erritmorra, Beasaindik pasatzen zenean ••

Mutur Beltz Eguna

Beasain celebrará el 150 aniversario de la línea de tren completa

El 27 de septiembre se celebrará el día de Mutur Beltz. Participarán la mayoría de asociaciones de Beasain, aportando cada una lo que mejor sabe hacer. Dos de los promotores de esta fiesta nos cuentan el cómo y el por qué de esta fiesta popular.

Nondik sortu zen Mutur Beltz Eguna ospatzeko asmoa?

Jose Luis Etxezarreta. Iaz trena iritsi zenaren urteurrenerako ekitaldi bat egin genuen Lemniskata elkarteak. Baina, horretan geratu zen. Igartzako Kultur Mahaia elkarte guztiak batuko zituen ekitaldi bat egiteko asmoa zuen, eta trenaren gaiari heltzea proposatu genuen mahaian, gai artifizial bat sortu beharrean. Txilibutxofeko kideak hasieratik egon dira gurekin, eta herriko hainbat elkarte batzen joan zaizkigu gero.

Bileretan joan da jendea batzen?

Xabi Garmendia. Bai. Aurrez ere joaten ziren elkarte ezberdinak kultur mahai honetako bilereara, eta Udalaren laguntza izan dugu dena koordinatzeko: Kultur teknikarien lana azpimarragarria izan da horretarako.

Zein elkarte parte hartuko dute?

X.G. Elkarte guztiei esker egin ahal izango da festa, eta bakoitzak egiten dabilen hori egingo du, osotasunari zerbait emanaz: Arrano Herri Kirol taldekoek herri kirolak modu didaktikoan erakutsi-

ko dituzte (egunerokoan zertarako egiten ziren alegia), Aurtzakakoek dantza egingo dute, bertso desafioa egongo da balkoitik balkoira, antzerki taldekoek kale animazioa egingo dute, Irati Goikoetxeak ipuinak kontatuko ditu, buruhandi eta erraldoiak egongo dira, Txilibutxofekoek umeentzako garai bateko edo trenari lotutako jokoak egingo ditugu... Kantujirakoek eta Argizpikoek ere parte hartuko dute, eta amaieran erromeria egingo dugu sagardoa eta muztioa eramango dituen gurdi batekin, eta plazapean afalduko dugu.

Noiz eta nola hasiko da festa?

X.G. Pregoia egingo dute estazioko balkoitik, eta gero, bertso desafioa eta gainerakoak hasiko dira. 27a baino lehen, ekitaldi gehiago ere egongo da.

Igandean ere izango da zerbait?

J.L.E. Igandean, hamaiketan, tranbia edo tren unitate bat Beasaindik Altsasura abiatuko da, ahalik eta geldien Ormaiztegiko zubian eta Aizkorriko tunelean azalpenak emateko.

Nolatan jarri diozue festari izen hori?

J.L.E. Dirudenez, trena pasatzen ikustera gerturatzeko ziren hasieran beasaindarrak, eta euskara-gaztelania nahasi batean, honela abesten omen zuten, trenak zeraman erritmoa jarraituz: *txokolatera mutur beltza, esta cuesta lo que cuesta*. Txokolatera deitzen zitzairen bapozeko trenari, eta abestiak dioten bezala, muturra beltz-beltza izaten zuten, eta bertako langileek ere halamoduz.

Festa hau errepikatzeko asmorik ba al duzue?

X.G. Aurtengoa ondo ateratzen bada, elkarteek elkarlanean egiteko festa polita dela uste dugu, eta elkarteak saretzeko bidea egiten jarrai dezakegu.